



DIARAMA

Afrika

II. EDIZIOA

SAHARAZ HEGOALDEKO AFRIKA ABERATS ETA ASKOTARIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETAK

PROGRAMA

AZAROAK 9 / PRESENTZIALA ETA ONLINE

1. saioa. Migrazioak

"Jendarte afrikarren migrazio-alderdia. Munduarekin harremanak sartzeko konstante historikoa"

Rafael Crespo Ubero. Historialaria eta Antropologoa. Bartzelonako Centre d'Estudis Africans i Interculturals erakundeko kidea. Nazioarteko migrazio afrikarretan aditua.

"Esperientzia Migratzaileak Euskadin"

Mariama Jallow, Haaly Pular Vitoria elkartearen ordezkaria

AZAROAK 11 / ONLINE

2. saioa. Kultura, generoa eta erlijioa

"Emakumeen mutilazio genitala, egunerokotasuneko mehatxua: Gineako kasua"

Mariama Touppé Diallo, legelaria (Frantzia bizi da), emakumeen eskubideen aldeko aktibista, eta XXI. Mendeko Kolektibo Ginearreko eta Ajephe elkartearen kidea.

AZAROAK 16 / ONLINE

3. saioa. Ekonomia

Goraka ari diren ekonomiak Saharaz hegoaldeko Afrikan: Boli Kosta eta Senegal.

Ainhoa Marín Egoscozabal, ekonomialaria, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakaslea eta ikertzaile nagusia Saharaz hegoaldeko Afrikarako Elcano Institutuan.

"Ekoizpen-garapeneko esperientziak Senegalgo Sahelen"

Makhtar Ndiaye, Nazioarteko Elkartasuna elkartearen ordezkaria Senegalen.

AZAROAK 18 / ONLINE

4. saioa - Politika eta Nazioarteko Harremanak

"Ezgonkortasun politiko eta demokratikoa Gineako Errepublikan"

Tola Ba. Egokitzapenezko justizia eta demokraziarekin konprometituriko aktibista ginearra

AZAROAK 23 / ONLINE

5. saioa. Ingurumena

"Emakume afrikarrak klima-aldaketari aurre egiten: Saheleko kasuaren azterketa"

Coro J-A Juanena. Azterlan Afrikarren Taldeko kidea, URJC unibertsitateko eta beste batzuetako irakaslea, eta KOIZ-Kolonialismo Osteko Ikasketa Zentroaren koordinatzailea

AZAROAK 25 / ONLINE

6. saioa. Mundu-mailako Elkartasuna

"Baterako garapena Afrikan: errealitateak eta mugak"

Mbuyi Kabunda, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Azterlan Afrikarren Taldeko kidea, Nazioarteko Harremanen eta Azterlan Afrikarren Masterreko irakaslea eta CIRaren zuzendaria

"Garapenerako lankidetzak Mauritanian"

Mohamedou Alioune Bewah, Mauritania Euskadi Elkarte Soziokulturalaren presidentea

SAHARAZ HEGOALDEKO AFRIKA ABERATS ETA ASKOTARIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETAK

Diarama Afrika – Saharaz hegoaldeko Afrika aberats eta askotarikoari buruzko elkarrizketak hainbat mintegiz osaturiko ikastaroa / zikloa da, Gasteizko herritarrei Saharaz hegoaldeko Afrikako errealitateen berri emateko helburua duena, horrela hango desberdintasunen arrazoen eta ondorioen gaineko hausnarketa kritikoa eragiteko, baita mundu-mailako arazoekin duten loturaren gainekoa ere. Horretarako, II. Edizio honetan, eskualde geografiko estrategikoak hartu ditugu ardatz gai bakoitza jorratzeko.



LEKUA

Erdi presentziala, Zoom online plataforma (izena emandakoei esteka bidaliko zaie)
Saio presentziala (azaroak 9) Vital Fundazioaren B Aretoan izango da: Dendaraba merkataritza-gunea, 1. solairua. 01005 Gasteiz.



ORDUTEGIA

19.00-21.00 h



IZENA EMATEKO

Inprimakian, zein saiotan zauden interesatuta edo parte hartu nahi duzun adierazi behar duzu.

HARTZAILEAK

Afrikan, Giza Eskubideetan eta garapenerako lankidetzan interesa duen pertsona oro. Gasteizen bizi direnek eta afrikarrek lehentasuna izango dute.

ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO

Diarama Afrika ikastaroak 15 orduko iraupena izango du.

Ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria lortzeko, 6 saioetatik 4tan parte hartu beharko da, gutxienez, eta ikastaro-amaierako lana egin, zeina beranduenz abenduaren 13an aurkeztu beharko den. Lanak ikastaroan jorraturiko arazoetako batzuen gaineko gogoeta jaso beharko du, eta hainbat formatutan aurkeztu ahal izango da: idazkia, irudia, bideoa... Partzuergoko hiru elkarteetako kideek osaturiko epaimahaiak hiru onenak hautatu, eta online argitaratuko dira.

ANTOLATZAILEAK

Diarama Afrikaren antolatzailea elkarte hauek osaturiko partzuergoa da:

Mboolo Elkar: Gasteiza iritsitako etorkin senegaldarrek osatua, 2006an sortu zen, herritarrak afrikarrentzat eta euskaldunentzat interesekoak diren hainbat gairen gainean sentsibilizatzea xede.

Haaly Pular Vitoria: migratzaile afrikarrek osatua, 2013an sortu zen, eta egoitza nagusia Gasteizen dauka. Nazioarteko lankidetzaren, baterako garapenaren eta migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan gizarteratzearen esparruan jarduten du.

Nazioarteko Elkartasuna – Solidaridad Internacional: 1989an sortua, Lurreko pertsona pobretuenei babes eta ahotsa ematea du xede, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunaren esparruan. Pobrezia desagerrarazteko, askatasuna hedatzeko eta munduan eskubide-berdintasuna ezartzeko lan egiten du, ikuspegi feministari helduta.

INFORMAZIO GEHIAGO

derechoshumanossi@sol-inter.org / 94 479 22 58

IZENA EMAN